# IGARKIZUNAK

1. Gizontxo bat, buruan uletxu bakar. *Akulua.*
2. Puntan punta bat, atzean zulo bat. *Jostorratza.*
3. Luze ta meatza, mundu guztian bearra. *Orratza.*
4. Kenduaz azi ta geituten dana. *Zuloa.*
5. Egunez kako ta kako, gauaz sendo ta sendo. *Ibuleta.*
6. Balio ez jateko ta ain bagarik ezin bizi. *Egurutsa.*
7. Sarira joan ta urratu ez, uretara joan ta busti ez. *Itzala.*
8. Miña da miña, ezta pipera; bizarra dauko, ezta gizona. *Berakatza.*
9. Basoan jaio, basoan azi, etxera etorri ta bera nausi. *Enbotezaria.*
10. Urtearen asieran gizen-gizen jaio, ta guenean argal-argal il. *Egutegi.*
11. Tantai aundi bat, amabi adaiesu, bakotxak lau apia, apia bakotxean zazpi txorikuma. *Urtea.*
12. Etxe txiki baten moja bat. *Ezen.*
13. Gizon bat anka-bakarra ta bera makurra. *Bartzuna.*
14. Kutxa txiki bat aizkoraz beterik. *Aua.*
15. Zotz bi ta motz bi ta lau trikitrako. *Auntza.*
16. Etzanik dago: laziko ba'litz, zerura joko leuke; eskuak ba'leukaz, lapurrak atxitu; berbetan ba'leki, guztia esan. *Bidea.*
17. Gona-motz, gingilla-luze. *Kanpaia.*
18. Aurrean sua, atzean pozua. *Kurtzelua.*
19. Bizia taraka, illa negarrez. *Burdia.*
20. Edurra baizen zuria, ikatza baizen baltza; oinik eztauko, baiña guztiz da ibiltari: miiñik euki ez arren berba egiten badaki. *Eskutitza.*
21. Aita latza, ama baltza, umea zuria. *Gaztaña.*
22. Zuri-zuria, ezta papera; berde-berdea, ezta muskerra; bizarrak baditu, ezta gizona. *Kipula.*
23. Ura edatera joaten dana, tantarik edan barik etorten dana. *Arrana.*
24. Txaleko gorri, tripa azurrezko, anka zurezko. *Keriza.*
25. Burua baltz, ankak zuri. *Arrasta.*
26. Basora doanean, etxera begira; etxera datorrenean, basora begira. *Auntz-adarrak.*
27. Txiki-txiki borobil, uretan igari dabil; buru-andi, buztan-luze, aren ondoren dabil. *Burduntzali.*
28. Eneukanean emon neutsun, orain badaukat eta ezazu. *Kuma.*
29. Dira lau neskatillatxu, beti alkarren atzean ta ezin alkarri ikutu. *Arilkoria.*
30. Balio ez jateko ta ain barik ezin bizi. *Dirua.*
31. Lau belarri, zabala egarri. *Aska.*
32. Basoan jaio ta basoan azi, erregen salan dantzan asi. *Iratsa.*
33. Emakumak berba gitxien egiten daben illa. *Zezeilla.*
34. Egunaz kantari ta gauaz lo. *Isupoa.*
35. Zer dala ta zer dala, etxean tripak itxita errekara doana? *Barrukoazala.*
36. Jan ta jan, ta kakarik ez; ipurdia bai, ta zulorik ez. *Kaperra.*
37. Arlo mandika-zabal, gastigar-adar. *Kitarra.*
38. Basorantzean etxera begira, etxerantzean basora begira. *Aizkora.*
39. Errekan bear zuria. *Uruna.*
40. Eun orri, berreun orri, Martin zanka-gorri. *Ira.*
41. Goizean lau oiñean, eguerdian oinbian, eta arratsean iru oiñean dabillena. *Gizona.*
42. Altu altu karakolean, iru kapatxu soiñean. *Perretxikoa.*
43. Burua buruko, gerri gerriko, eperdia zakutu. *Iñurria.*
44. Atso zaar bat saiets-azurrak agirian. *Laba.*
45. Upa txiki palanka, txingo txingo biribil, uren gaiñean dabil. *Arrautza.*
46. Zalduna dantzan, damea tripak ataraten. *Ardatza.*
47. Ara ta ona, eutsi ta tati erabilten dabena. *Kedats-ontzia.*
48. Eun dira, berreun dira, guztiak uzki-zuri dira. *Iiak.*
49. Or sartu, emen atera; or sartu, emen

atera, ta azkenean korapillo. *Gonaun-tza.*

50. Basoan jaio, basoan azi, etxera etorri-ta txizagiñen asi. *Leixibontzia.*

51. Beti beti legorrean, ta beti bustirik. *Miiña.*

52. Egunaz barnean, gauaz konpoan. *Ugar-gia.*

53. An zulo ta emen zulo, emeretzi kaka-zulo. *Laratza.*

54. Zuri ta zal, zuri ta zal, Oiz'ko edurrak baizen zuri, kortako edeak baizen zala. *Mataza.*

55. Basoan jaio, basoan azi, jauregiratuta zuririk jantzi. *Maia.*

56. Ez-eukiak banatzen ta aberatsak ba-tzen. *Muskilla.*

57. Oianean azten, urean ezten. *Errota.*

58. Umetan zuri, mutilletan gorri, agura-tan baltz. *Masusta.*

59. Belea baiño baltzago. *Eriotza.*

60. Biribilla erein, luzea etara; gogorra sartu ta biguña etara. *Arbia.*

61. Sekula izan, ez izango ez dana. *Sa-kabia.*

62. Gelatxo eta gelatxo, gelatxo bakotxean damatxo. *Laiño.*

63. Maindire bat, arizkoa ez; guztia estal-tzen dan ta ura ez. *Edurra.*

64. Aguratxo pospolin, bost bizar ta bost agin. *Mizpilla.*

65. Itxasoan edan eta basa-mortuan txiz egin. *Odeia.*

66. Altun-altun joan da okakia, zeinbat ume ainbeste abia. *Intxaurra.*

67. Biribillean trongo, luzean Bilbo ragi-ño. *Arilla.*

68. Gelatxu ta gelatxu, gelarik diña da-matxu. *Ezti-abaua.*

69. Soloa zuria ta azia baltza. *Papera.*

70. Itxirik makillea, zabalik tellatua. *Eu-ritakoa.*

71. Gizon txapeldun bat, urtean bein txapela ken. *Lasto-meta.*

72. Zelai batean naiheste aari. *Zorria.*

73. Aotik begiratu ta tripea agiri. *Lapi-koa.*

74. Berdea ba-dau, ezta muskerra; zuria ba-dau, ezta papera; bizarra bá-dau, ezta gizona. *Porrua.*

75. Uraren gaiñean zubia, zubiaren gai-ñean gizon buru-zuri bat. *Gaztae.*

76. Amabi andra, beti lasterka ta ezin al-karri oratu. *Area.*

77. Aragia kanpoan, narrua barruan. *Kre-txina.*

78. Mendian jaio, mendian azi, etxera etorrita kapelua jantzi. *Gorua.*

79. Utsa, zutik ezin egon; betea zelan-nai. *Zorroa.*

80. Lapikoan sartu ta egosten dana, eta jaten doguneean ikusten eztana. *Gatza.*

81. Atso buru-urdin bat aun ortzekin. *Txarrantxa.*

82. Jaun bat zango baten gaiñean eta txapela buruan. *Zuza.*

83. Sasian ezta urratzen, urean ezta bus-titzen. *Eguzkia.*

84. Ikusten dot, ondoan dot eta ezin ora-tu. *Geriza.*

85. Eun zulo, berreun zulo, Martin ipur-zulo. *Zartana.*

86. Ondoan ondo bi, puntan punta bi. *Artazia.*

87. Errekarik andiena busti barik igaroko leukena. *Bunpada.*

88. Solorakoan etxera begira, ta etxera-koan solora. *Eperdia.*

89. Egoak euki ta egazik ezin. *Arrankaria.*

90. Mendi baten azpian lau iturri. *Erra-pea.*

91. Lau txizki trauzki, atzean ipizki. *Beia.*

92. Luze da, luze, sokea legez; agiñak daukoz, otsoak legez. *Sasia.*

93. Ipurdiarekin zangorik ez, gorputzare-kin besorik ez, lepoarekin bururik ez. *Bonbilla.*

94. Urtean bein bakarrik atorra aldatu. *Sugea.*

95. Esia esiaren gaiñean. *Zataria.*

